

Errotariaren xakurra

Oihan beltzean bizi zen xori abeslari bat. Egun guzia kantuz pasatzen zuen bazterrak alegeratzen zituela. Oihaneko biztanle guziek preziatzen zuten haren alaitasuna. Habia lizar baten kaskoan egina zuen eta han, lau ume hazten zituen.

Behin...

- Axeria : Zer dira piupa horiek ? Uste dut gaur askari goxoa egingen dudala !
(usnatuz) Errazu xori abeslaria, zuk dituzuia umeak ?
- Xoria : Ez, ez ! Gaizki entzun dukezu ! Piupak ez dira nire habiatik heldu !
- Axeria : Nortzat hartzen nauzu ? Belarria sudurra bezain fina dut. Erradazu zenbat ume duzun !
- Xoria : Lau baina otoi ez iezaiezula minik egin ! Sortu berriak dira eta ez zaituzte trabatuko !
(erdi ahapetik)
- Axeria : Lau ? Sobera duzu ! Bizia doan bezala ez dituzu denak hazten ahalko ! Emadazu baño !
- Xoria : Zer ? Zer derasazu ? Zuri xori bat eman ? Burutik joana zara, ba !
- Axeria : Ez, ez, burua argi dut eta hortzak zorrotz ! Ekar iezaadazu bat bestenaz lizarra inarrosiko dut eta ohantze guzia dut erorraraziko !
- Xoria : Ez iezaguzula horrelakorik egin ! Xoritxo bat emanen dizut bakean utz gaitzazun !
(Lurrera gabe axeriak umea irensten du.)
- Axeria : Hiru ume soberaxko da ama batentzat. Bota iezaadazu beste bat !
(ezpainak milikatuz)
- Xoria : Nola ukan dezakezu horrelako bihotz gogorra ? Ez duzuia ikusten penaz hilen naizela ?
- Axeria : Hil ? Hil zaitez, ba ! Nik gogotik janen zaitut !
(Bat klikatu orduko axeriak keinu egiten du erhiarekin eta aldi bakoitz xoriak, negarrez hipaka, ume bat botatzen dio.)
- Axeria : Zatoz zu ere, bada oraino toki zure lau umeen ondoan. (Eta irriz karkailaka badoa)
(tripa ontsa torratuz)
- Eiherazainaren Zer duzu negarrez ? Zer gertatzen zaizu ?
xakurra :
(negarrez ari den
xoriari)
- Xoriak : Axeriak umeak jan dizkit.
- Xakurra : Zer ustela ! Zoaz harpez-harpe eta jakinaraz oihaneko bizilagun guziei errotariaren xakurra hila dela. Hementxe egonen naiz ni, etzanik, erreka ondoan.
- Xoria : Errotariaren xakura hila dela ! Errotariaren xakurra hila dela !
(alde guzietara joanez)
- Axeria : Egia dea zabaltzen duzun berri ona ?
- Xoria : Bai, bai, fundi baietz !
- Axeria : Eta badakizuia non ote den ?
- Xoria : Eihera ondoko erreka bazterrean. Zoazi zuhaur ikustera !
(Axeria emeki-emeki hurbiltzen zaio, usaintzen du, buztana kitzikatzen dio.)

Axeria : Ez da dudarik, hila da ! Orain artio ikaran atxiki nau zikin honek baina hemendik goiti
haste besta !

*(Patta altxatzen du xakurraren gainean baina honek brau aztapar egiten dio tripan zituen lau
umeak askatuz.)*

Xoria : Milesker, jaun xakurra, ez dut sekula ahantziko zure laguntza eta ene kantuen bitartez
oihan guziari jakinaraziko diot zein abila eta kementsua izan ziren !

Leon Leonen obra batetik egokitua

Jokalariak Axeria, xoria eta eiherazainaren xakurra
Autorea : Kattalin Sallaberry
Argitaratzailea : Ikas
Argitaratze data : 2010/12/21
Maila : 3. ziklotik goiti